

HIZKUNTZA POLITIKAREN ARLOKO LANKIDETZA-PROTOKOLOA

Hizkuntza-politikaren arloko lankidetzaproto­koloa duela hamabi urte sinatu zen, Kataluniako, Euskadiko eta Galiziako gobernuen ekimenez. Gaur egun, sei dira protokolo hori sinatzen duten gobernuak, Balear Uharteetako, Valentziako eta Nafarroako gobernuak batu ondoren. Gobernu sinatzaile guztiek ikuspegi bera partekatzen dute eleaniztasunari, elkarrekiko errespetuari eta ahultasun handieneko egoeran dauden hizkuntzen aldeko ekintza irmoari dagokienez.

Gogora ekarri behar da lankidetzatresna horren helburu nagusia dela batez ere estatuko erakundeek, zentralek zein periferikoe­k, Espainiako Estatuaren errealitate eleanitza erabat bereganatzea. Horrela, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean jasotako betekizunen eta bete­beharren multzo zabal eta oinarritzkoa Estatuko Gobernuaren menpeko administrazioen errealitate operatibo eta funtzionalera eramango da. Aintzat hartu behar da Espainiako Estatuak sinatu eta berretsi egin zuela aipatutako Gutuna. Eta errealitateak egunero erakusten digu gure ekimen aktiboa zaintza eta aldarrikapena, beharrezkoak direla oraindik ere. Duela hamabi urte bezain beharrezkoak, gehiago ez bada.

Hain zuzen ere, Espainiako Estatuaren berrespenaren hogeigarren urteurrenera hurbiltzen ari gara, eta biziki kezkatuta gaude Hizkuntzen Europako Gutunaren jarraipen-txostenek behin eta berriz agerian jartzen dituztelako ez-betetze berberak Estatuko Administrazioaren aldetik. Ez betetze hauek gainera, oso eremu garrantzitsutan gertatzen dira, hala nola Justizia Administrazioan eta bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia-erkidegoetan kokatutako Administrazio Zentraleko zerbitzuetan.

Ukaezina da asko direla gure hizkuntzen oraingo eta etorkizuneko garapena arriskuan jartzen duten arrisku-faktoreak, bai eta Espainiako Estatuak berak bere Konstituzioan aitortzen duen errealitate eleaniztunarenak ere; horregatik, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da Estatuko Administrazioak, hizkuntza-eskubideen babesa eta zaintza egon daitezen ardura hartzea estatu demokratiko orori eska dakioken koherentziarekin. Era berean, beharrezko neurriak hartu beharko lituzke bai Adituen Batzordearen txostenek behin eta berriz jasotzen dituzten gomendioak betetzeko, bai eta Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera onartutako gomendioak betetzeko ere.



Herritarren hizkuntza-eskubideak babestea eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea, gure berezko hizkuntzen sustapen sistematizatu eta eraginkorraren bidez, interes politiko partikularren edo koiunturalen ginetik egon behar duen zeregina da, estatu demokratiko baten muinean bertan txertatzen delako. Ez da aukera bat, maila goreneko agindu demokratiko bat baizik, zilegi den helburu bat, Europako eta Estatuko erakunde gorenek aitortu eta berretsia.

Izan ere, Protokolo hau eta Adierazpen hau sinatzen ditugunok sentsibilitate eta aukera politiko desberdinetatik abiatuta lan egiten dugu, eta errealitate oso desberdinetan jarduten dugu, baina aniztasun horrek ez digu inolako oztoporik jartzen arazoak antzemateko eta konponbiderako proposamenak elkarrekin adosteko, hain zuzen ere, sinetsita gaudelako hizkuntzen eta hiztunen arteko bizikidetzaz, elkar ezagutzea eta aitortzea, bai eta elkar aberastea ere, demokrazia sakonenaren isla direla. Era berean, etorkizuna, baina baita oraina bera ere, eleaniztasunaren eskutik etorriko delako ziurtasunak ere mugiarazten gaitu, eta horrek esan nahi du gure hizkuntzen sustapena, Estatuari zein gure erakundeei ere eska dakiekeena, gizarte demokratiko modernoetako bizikidetzaren giltzarrietako bat dela. Eta hori da, azken batean, lortu nahi duguna.

Horrekin guztiarekin bat etorriz, Adierazpen honen sinatzaileok, gure gobernuetako Hizkuntza Politikaren arduradunok, duela gutxi egindako hauteskunde-deialdiaren ondorioz osatu behar den Gobernuari honako hau eskatzen diogu: atzerapenik gabe eta gure erkidegoetako erakundeekin elkar ulertzeko eta adosteko giro batean, urrats eraginkorrak eman ditzala bere agenda politikoan plan eraginkor bat txertatzeko, Estatuko Administrazioak gaztelania ez diren beste hizkuntza ofizialekiko dituen betebeharrak betetzera bideratua. Atzerapenik onartzen ez duen zeregina da, eta horretarako, beti egin dugun bezala, gure lankidetzaz eta akordiorako borondatea eskaintzen ditugu.

Ildo beretik, gure ustez, Estatuko Gobernuari eskatzen diogun jarrera arduratsu eta proaktiboa bideratu beharko lukeen ildo nagusietako bat azpimarratu nahi dugu: hizkuntzen eta hiztunen arteko bizikidetzaz harmoniatzarako, berebiziko garrantzia du Estatuko agintariak neurri pedagogiko eta komunikatibo eraginkorrak hartzea. Izan ere, Estatuko herritar guztiek beren gain hartu beharko lituzkete, batetik, Estatuaren funtsezko errealitate eleaniztuna, eta bestetik, Espainiako Estatuan



hizkuntza ofizialak modu iraunkorrean sustatzeko beharra, hori baita eleaniztasun orekatu eta harmoniatsua lortzeko gakoa.

Azkenik, Adierazpen hau sinatzen dugunok berretsi eta indartu egiten dugu gaur gure konpromisoa, akordioan oinarritutako eta iparrorratz gisa hizkuntza- zein giza-bizikidetzan eraikitako hizkuntza-politika ausartaren eta eraginkorraren alde lanean jarraitzeko.

Bilbo, 2019ko azaroaren 20a.